

'GAZTEEN MUGIKORTASUN BALIABIDEAK EUROPAR BATASUNEAN' ikastaroa

Gazteen Euskal Behatokiaren 2011ko Prestakuntza Planaren lehenengo ikastaroa egin da Bilbon

Bilbon, [Gazteen Euskal Behatokiaren](#) egoitzan, *Gazteen mugikortasun-baliabideak Europar Batasunean* ikastaroa eman da 2011ko martxoaren 21ean, 22an eta 23an, gazteen arloan, lan-orientazioan eta hezkuntzan lan egiten dutenen lagungarri. Europar Batasunean gazteen mugikortasuna aldeztu duten baliabideei eta programei buruzko informazioa ematea izan da ikastaroaren helburua.

Irakaslea **Antonio Jesús Rodríguez Martínez** izan zen. Antonio Jesús Andújarko Udalaren Europar Proiektuetako teknikaria da eta Andújarko Udalaren eta Europako Batzordearen mendeko Europe Direct Andújar europar informazio-zentroko arduraduna.

Hogeita bost pertsonak eman zuten izena. Hona hemen euren lanbide-profilak:

- Gazteen arloko langileak (gazteentzako informazio-bulegoetako, udaletako, foru aldundietako, gazteen elkarteetako eta bestelako entitateetako langileak).
- Hezitzaileak.
- Bigarren Hezkuntzako Ikastetxeetako orientatzaileak.

Ikastaroaren iraupena 15 ordukoa izan da, bost orduko hiru saiotan banatua.

Kurtsoan parte hartu dutenek honako batez besteko balorazioak eman dizkiote ikastaroari (0tik 10erako eskalan):

